

BESTELAKO XEDAPENAK

EKONOMIAREN GARAPEN ETA AZPIEGITURA SAILA

1766

AGINDUA, 2018ko martxoaren 20koa, Ekonomiaren Garapeneko eta Azpiegituretako sailburuarena, zeinaren bidez 2018ko deialdia egiten baita Euskal Autonomia Erkidegoko itsasertzeko eremuak garatzeko eta bultzatzeko laguntzak emateko (Itsaspen programa), otsailaren 21eko 22/2012 Dekretuaren II. eta III. kapituluaren babesean.

Euskal Autonomia Erkidegoko itsasertzeko eremuak garatzeko eta bultzatzeko laguntzei (Itsaspen Programa) buruzko otsailaren 21eko 22/2012 Dekretuak (2012ko martxoaren 6ko Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkaria, 47. zk.) helburu dauka Euskal Autonomia Erkidegoko itsasertzeko eremuak sustatzeko eta garatzeko laguntzak emateko araubidea sortzea eta arautzea, eremuotako oinarritzko zerbitzuak eta herritarren bizi-kalitatea hobetzeko eta kostaldeko herriak biziberritzen, berritzen eta garatzen lagunduko duten jarduera ekonomiko berriak sortzen laguntzeko.

Otsailaren 21eko 20/2012 Dekretuaren 7. artikuluan xedatu bezala, urtero egingo da laguntzetarako deialdia eta, halaber, bigarren zenbakian bildutako zenbait eduki finkatuko dira, hala nola: zein den eskabideak aurkezteko epea; gehienez zenbat diru bideratuko den laguntzak banatzeko (kapituluetan banatuta); zein diren diruz lagunduko diren laguntza-lerroak; irizpide objektiboan artean zein aplikatuko diren laguntzen zenbatekoa zehazteko; nolako dokumentazioa aurkeztu behar den; zein den inbertsioak eta gastuak egiteko epea, bai eta Inbertsioak eta gastuak justifikatzeko; eta soberakin ekonomikorik badago, nola banatuko diren kapitulu bakoitzean.

Deialdian jasotako diru-laguntzak Ekonomiaren Garapen eta Azpiegitura Sailaren 2018ko Diru-laguntzen Plan Estrategikoan jasota daude –Garapeneko eta Azpiegituretako sailburuaren 2018ko otsailaren 15eko Aginduan onartua–, eta honako esteka honetan kontsulta daitezke: <http://www.euskadi.eus/noticia/2018/plan-estrategico-de-subsenciones-del-departamento-de-desarrollo-economico-e-infraestructuras-para-2018-consejo-de-gobierno-20-02-2018/web01-s2ekonomoes/sayudas>

Deialdi hau ebazterakoan, aintzat hartuko dira administrazio publikoen diru-laguntza jarduera arautzen duten publikotasun-, lehia- eta objektibotasun-printzipioak, betiere honako arau hauetan xedatutakoari jarraituz: Euskal Autonomia Erkidegoko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko Legearen testu bategina, azaroaren 11ko 1/1997 Legegintzako Dekretuaren bidez onartua; Diru-laguntzei buruzko 38/2003 Lege Orokorraren oinarritzko manuak; Diru-laguntzei buruzko Lege Orokorraren Erregelamendua onartzen duen uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretua, eta laguntza eta diru-laguntzei aplikatu beharreko gainerako xedapenak. Gainera, diru-baliabide erabilgarriak otsailaren 21eko 22/2012 Dekretuan eta agindu honetan ezarritako irizpideen arabera aplikatuko dira.

Hori dela bide, honako hau

EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.– Xedea

Agindu honen helburua deialdia egitea da Euskal Autonomia Erkidegoko itsasertzeko eremuak garatzeko eta bultzatzeko 2018ko laguntzak emateko (Itsaspen Programa), II. eta III. kapituluetan eta otsailaren 21eko 22/2012 Dekretuan aurreikusita baitaude.

Bigarrena.– Eskabideak eta dokumentazioa.

1.– Otsailaren 21eko 22/2012 Dekretuan erregulatutako Euskal Autonomia Erkidegoko itsasertzeko eremuak garatzeko eta bultzatzeko 2018ko laguntzak (ITSASPEN Programa) eskatzeko inprimakia onartu da, eta www.nasdap.ejgv.euskadi.eus webgunean jarriko da eskuragarri.

2.– Laguntza-eskabideak aipatutako inprimaki onartu horren arabera aurkeztu beharko dira, Eusko Jaurlaritzaren Ekonomiaren Garapen eta Azpiegitura Saileko Landaren eta Itsasertzaren Garapeneko eta Europar Politiketako zuzendariari zuzenduta (Donostia kalea 1, 01010 Vitoria-Gasteiz).

3.– Eskabideak zuzenean aurkez daitezke, edo Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 16.4 artikuluan zehaztutako tokietan, betiere apirilaren 29ko 72/2008 Dekretuari jarraituz (72/2008 Dekretua, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorraren eta haren erakunde autonomoen erregistroen sorrera, antolaketa eta funtzionamenduari buruzkoa). Eskatzaileak postetxe batean aurkezten badu eskabidea, gutun-azal irekian egin beharko du, postako langileek zigila dezaten eta data ezar diezaioten.

4.– Laguntzak eskatzen dituztenek, eskabidearekin batera, otsailaren 21eko 22/2012 Dekretuaren 6. artikuluan aurreikusitako dokumentazioa aurkeztu beharko dute.

5.– 2018 ekitaldian, otsailaren 21eko 22/2012 Dekretuak ezarritako laguntza deialdian sartzeko eskabideak aurkezteko epea hilabetekoa izango da agindu hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta biharamunetik hasita.

Hirugarrena.– Baldintzak.

Deialdi honetako diru-laguntzak jasotzeko interesa dutenek egiaztatu beharko dute otsailaren 21eko 22/2012 Dekretuaren 5. artikuluko baldintzak betetzen dituztela, eta diru-laguntzak debekatzeko Diru-laguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 13.2 artikuluan jasotako inguruabarretako bakar batean ez daudela.

Laugarrena.– Gehieneko diru-zuzkidura.

1.– Agindu honetan deitutako 2018ko ekitaldirako laguntzen gehieneko diru-zuzkidura 500.000 eurokoa da. Horietatik 382.500 euro II. kapituluan jaso dira, (262.500 euro 2018an ordaintzeko kredituari dagozkio eta 120.000 euro, 2019an ordaintzekoari). Azkenik, III. kapituluari 117.500 euro dagozkio: 87.500 euro 2018. urterako ordainketa-kredituarenak dira, eta 30.000 euro, 2019. urterako konpromiso-kredituarenak.

2.– Bi kapitulu horietako batean soberakinik badago, besteari esleituko zaizkio.

Bosgarrena.– Diruz laguntzeko moduko laguntza-lerroak.

Otsailaren 21eko 22/2012 Dekretuaren babespean 2018an diruz lagunduko diren jarduerak II. eta III. kapituluetan aurreikusitakoak izango dira.

Seigarrena.– Laguntzen balorazio- eta kuantifikatze-irizpide objektiboak.

Proiektuak baloratzeko, otsailaren 21eko 22/2012 Dekretuaren 8. artikuluan aurreikusitako irizpide objektibo guztiak hartuko dira kontuan.

Zazpigarrena.– Obligazioak.

Otsailaren 21eko 22/2012 Dekretuko 12. artikuluan jasotako onuradunen obligazioez gain, Diru-laguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 14.1 artikulukoak ere bete beharko dira, eta Lege horretako 46. artikuluan lankidetzaren beharri buruz adierazitakoa.

Zortzigarrena.– Inbertsioak eta gastuak gauzatzeko epea.

1.– II. eta III. kapituluetakoko ekintzei dagozkien inbertsioak eta gastuak urtekoak edo urte anitzekoak izango dira. Urteko proiektuak gauzatzeko gehieneko epea 2018ko abenduaren 31n amaituko da, eta urte anitzekoak gauzatzekoa, berriz, 2019ko abenduaren 31n, hargatik eragotzi gabe otsailaren 21eko 22/2012 Dekretuaren 13. eta 16.3 artikuluetan xedatutakoa betetzea.

2.– Proiektu bakoitzaren inbertsio eta gastuak gauzatzeko epea zehazteko, aintzat hartuko da Landaren eta Itsasertzaren Garapeneko eta Europar Politiketako zuzendariaren Ebazpenean ezarritakoa, hala ezarrita baitago otsailaren 21eko 22/2012 Dekretuaren 11. artikuluan.

Bederatzigarrena.– Inbertsioak justifikatzeko epea.

Urteko eta urte anitzeko proiektuetan, gehienez bi hilabeteko epean justifikatu beharko da inbertsioak eta aurreikusitako gastuak gauzatu direla, laguntza emateko ebazpenean ezarritako inbertsio- edo gastu-proiektua amaitzen denetik edo azken luzapenetik hasita, hala ezarrita baitago otsailaren 21eko 22/2012 Dekretuaren 14.3 artikuluan.

AZKEN XEDAPENETATIK LEHENENGOA.– Aplikatu beharreko araudia.

Agindu honetan aurreikusitako laguntzei dagokienez, honako arau hauetan xedatutakoa bete beharko da: otsailaren 21eko 22/2012 Dekretua, itsasertzeko eremuak garatzeko eta bultzatzeko diru-laguntzak emateko modua arautzen duena (Itsaspen Programa); Euskal Autonomia Erkidegoko Ogasun Nagusiaren Antolaraueti buruzko Legearen testu bategina, azaroaren 11ko 1/1997 Legegintzako Dekretuaren bidez onartua; urriaren 1eko 39/2015 Legea, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearena; urriaren 1eko 40/2015 Legea, Sektore Publikoaren Araubide Juridikoarena; Diru-laguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren oinarritzako manuak; Diru-laguntzei buruzko Lege Orokorraren Erregelamendua onartzen duen uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretua; eta Europar Batasunaren Funtzionamenduari buruzko Tratatuaren 107. eta 108. artikulua minimis laguntzei aplikatzeari buruzko 2013ko abenduaren 18ko Batzordearen 1407/2013 (EB) Erregelamendua.

AZKEN XEDAPENETATIK BIGARRENA.– Errekurtsoak.

Agindu honek amaiera ematen dio administrazio-bideari, eta, beraren aurka, aukerako berraztertze-errekurtsoa aurkez dakioko Ekonomiaren Garapen eta Azpiegituretako sailburuari, hilabeteko epean, agindua Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik hasita; bestela, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa ezar daiteke Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiaren Administrazioarekiko Auzien Salan, bi hilabeteko epean, agindua EHAA-n argitaratu eta hurrengo egunetik hasita.

AZKEN XEDAPENETAN HIRUGARRENA.– Ondorioak.

Agindu honek Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera izango ditu ondorioak.

Vitoria-Gasteiz, 2018ko martxoaren 20a.

Ekonomiaren Garapeneko eta Azpiegituretako sailburua,
MARÍA ARANZAZU TAPIA OTAEGUI.

2018ko apirilaren 5a, osteguna

ERANSKINA

PROGRAMA ITSASPEN	EUSKO JAURLARITZA EKONOMIAREN GARAPEN ETA AZPIEGITURA SAILA <i>Landaren eta Itsasertzaren Garapeneko eta Europar Politikaetako Zuzendaritza</i>	 GOBIERNO VASCO DEPARTAMENTO DE DESARROLLO ECONÓMICO E INFRAESTRUCTURAS <i>Dirección de Desarrollo Rural y Litoral y Políticas Europeas</i>	ESPEDIENTEA EXPEDIENTE
----------------------	------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------	--------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------	-----------------------------------------

2018ko ESKABIDE EREDUA
MODELO SOLICITUD 2018

EUSKAL AUTONOMI ERKIDEGOKO ITSASERTZAREN AYUDAS A LA PROMOCIÓN Y DESARROLLO DE LAS ZONAS
 SUSTAPEN ETA GARAPENERAKO LAGUNTZAK - OTSAILAREN LITORALES DE LA COMUNIDAD AUTÓNOMA DEL PAIS VASCO -
 21eko 22/2012 Dekretua. Decreto 22/2012 de 21 de febrero.

ESKATZAILEA / SOLICITANTE⁽¹⁾ - Pertsona fisikoa denean bakarrik / ⁽¹⁾ - Sólo en caso de persona física* IKZ / IFK - NIF / CIF: ⁽¹⁾ Sexua / Sexo: E/M G/H* Izena ⁽¹⁾ - Entitatea / Nombre ⁽¹⁾ - Entidad: ⁽¹⁾ 1. abizena / Apellido 1: ⁽¹⁾ 2. abizena / Apellido 2: * Helbidea / Dirección: * PK / C.P.: * Lurraldea / Territorio: * Udalerria / Municipio: Telefonoak / Teléfonos: Faxa / Fax: Web-orria / Web: emaila / e-mail: Harremanetarako pertsona / Persona de contacto: Telefonoak / Teléfonos: emaila / e-mail: **Ordezkarri legala / Representante legal:*** Izena / Nombre: * IKZ / NIF: * 1. abizena / Apellido 1: * 2. abizena / Apellido 2: ESKATZEN DITU: otsailaren 21eko 22/2012 Dekretuak
arautzen duen diru-laguntza hauek:SOLICITA: las siguientes ayudas reguladas mediante el
Decreto 22/2012, de 21 de febrero:

- Itsas ekonomiarako eta populaziorako oinarrizko zerbitzuak.
 Servicios básicos para la economía y la población litoral.
- Itsas ondearen zaindu eta hobetzea.
 Conservación y mejora del patrimonio litoral.

EGITASMOAREN IZENBURUA ETA INBERTSIOA EDO GASTUA / TÍTULO DE PROYECTO E INVERSIÓN O GASTO* Izenburua / Título:

INBERTSIOA EDO GASTUAK (BEZ GABE) INVERSIÓN O GASTOS (SIN IVA)	GUZTIA (€) TOTAL (€)	2018 (€)	2019 (€)
* Inbertsioak edo gastuak aktiboetan Inversiones en activos o gastos			
* Eskatutako dirulaguntzaren gehieneko zenbatekoa Importe máximo de ayuda solicitada			

 (e)n, 2018ko (r)en (a)n En , a de de 2018
AHALDUNAREN SINADURA ETA ENPRESA ZIGILUA
FIRMA DEL REPRESENTANTE Y SELLO DE LA EMPRESA

Datu Pertsonalak babesteari buruzko 15/1999 Lege Organikoan xedatutakoa bezelaxe, Ekonomiaren Garapen eta Azpiegitura Sailak jakinarazten dizu inprimaki honen bidez eskuratutako zure datu pertsonalak datuak tratatzeko fitxategi automatizatu batean sartuko ditugula. Hala nahi izanez gero, datuok eskuratu, zuzendu, ezeztatu eta datuoi aurka egiteko eskubideez baliatu zaitezke. Eusko Jaurlaritzako Ekonomiaren Garapen eta Azpiegitura Sailaren Zerbitzu Orokorren Zuzendaritzari idatzi bat bidaliz, hura baita tratamenduaren arduraduna (Donostia-San Sebastián kalea 1, 01010 Vitoria-Gasteiz).

En cumplimiento de lo dispuesto en la Ley Orgánica 15/1999, de Protección de Datos de Carácter Personal, el Departamento de Desarrollo Económico e Infraestructuras, le informa que sus datos personales obtenidos mediante la cumplimentación de este impreso, van a ser incorporados para su tratamiento en un fichero automatizado. Si lo desea, puede ejercitar los derechos de acceso, rectificación, cancelación y oposición, previstos por la Ley, dirigiendo un escrito a la Dirección de Servicios Generales del Departamento de Desarrollo Económico e Infraestructuras del Gobierno Vasco, como responsable del tratamiento, y con domicilio en C/ Donostia-San Sebastián, 1, en Vitoria-Gasteiz.

Donostia - San Sebastián, 1 - 01010 - VITORIA-GASTEIZ
 Tef. 945 01 96 93 - Fax 945 01 97 02

2018ko apirilaren 5a, osteguna

PROGRAMA ITSASPEN	EUSKO JAURLARITZA EKONOMIAREN GARAPEN ETA AZPIEGITURA SAILA <i>Landaren eta Itsasertzaren Garapeneko eta Europar Politiketako Zuzendaritza</i>	 GOBIERNO VASCO DEPARTAMENTO DE DESARROLLO ECONÓMICO E INFRAESTRUCTURAS <i>Dirección de Desarrollo Rural y Litoral y Políticas Europeas</i>	ESPEDIENTEA EXPEDIENTE
	ERANTZUKIZUNPEKO ADIERAZPENA DECLARACIÓN RESPONSABLE		

⁽¹⁾ - Pertsona fisikoa denean bakarrik / ⁽¹⁾ - Sólo en caso de persona física*IKZ / IFK – NIF / CIF: *Izena ⁽¹⁾ - Entitatea / Nombre ⁽¹⁾ - Entidad: ⁽¹⁾ 1. abizena / Apellido 1: ⁽¹⁾ 2. abizena / Apellido 2: **Ordezkarri legala / Representante legal:***Izena / Nombre: *IKZ / NIF: * 1. abizena / Apellido 1: * 2. abizena / Apellido 2: **ADIERAZTEN DU**

- a) Laguntza-eskabidean adierazi duena egia dela eta eskabidearekin batera aurkeztutako agiriak benetakoak direla, gezurrik edo datu okerrik azalduz gero erantzukizun osoa beregain hartuko duela eta, ez duela adieraziko ez zituela ezagutzen gezur edo datu oker horiek eragin dituzten gertaerak.
- b) BAI EZ (dagokiona markatu) eskaera aurkeztu du edo/eta data eguna arte proiektu honetarako diru-laguntzak jaso ditu ondoren agertzen diren erakunde publiko edo pribatu aldetik. Honetaz gain, konpromisoa hartzen du jasoko dituen diru-laguntzen berri emateko:

DECLARA

- a) Que las manifestaciones realizadas y la documentación presentada en la solicitud de ayuda son ciertas, aceptando cualquier responsabilidad que se pueda derivar de su falsedad o inexactitud, sin que quepa alegar ignorancia de los hechos que motivan dicha falsedad o inexactitud.
- b) Que Sí No (marcar lo que proceda) ha presentado solicitud y/o ha obtenido ayuda para este proyecto, hasta la fecha, en las instituciones públicas o privadas que a continuación se relacionan, comprometiéndose a comunicar cuantas solicitudes de ayuda realice para este proyecto:

ESKAERA EGUNA FECHA SOLICITUD	ERAKUNDEA INSTITUCIÓN	PROGRAMA PROGRAMA	EGOERA SITUACIÓN	ESKATUTA (€) SOLICITADO (€)	EMANA (€) CONCEDIDA (€)
			<input type="checkbox"/> UKATUA / DENEGADA <input type="checkbox"/> IZAPIDETZEN / EN TRÁMITE <input type="checkbox"/> EMANA / CONCEDIDA		
			<input type="checkbox"/> UKATUA / DENEGADA <input type="checkbox"/> IZAPIDETZEN / EN TRÁMITE <input type="checkbox"/> EMANA / CONCEDIDA		
			<input type="checkbox"/> UKATUA / DENEGADA <input type="checkbox"/> IZAPIDETZEN / EN TRÁMITE <input type="checkbox"/> EMANA / CONCEDIDA		

- c) BAI EZ (dagokiona markatu) dagokien minimis erregelamenduen barnean dauden diru-laguntzak jaso ditu zerga ekitaldi honetan eta aurreko bietan. Jasotako kopurua € takoa da.
- d) Proiektuak bete egiten ditu ingurumenaren eta higienearen arloko arauak eta inbertsioei ezartzeak zaizkien arau komunitarioak, eta ez dauka ondorio negatibo esanguratsurik ingurumenean.
- e) Inbertsioa egin dela eta proiektua gauzatu dela egiaztatze beharrezkoak diren agiri guztiak Eusko Jaurlaritzaren edota kontrol organoen esku jartzeko konpromisoa hartzen duela.
- f) Eskatzaileak ez du jaso diru-laguntza publikoak eskuratzea eragozten duen zehapen administratiborik edo penalik, eta ez dauka horretarako legezko inolako debekurik, sexubereizkeriagatik debekuak barne, Emakumeen eta gizonen arteko berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legearen amaierako seigarren xedapenean zehaztutakoarekin bat etorri.
- g) Pertsona fisiko edo juridiko pribatua izanez gero, pertsona hori titular den enpresa ez dagoela krisi-egoeran, Europako Erkidegoak krisitik ateratzeko eta berregituratzeko estatuko laguntzetan ezarri dituen zuzentzarauetan jasotako definizioaren arabera (2004ko urriaren 1eko C 244/2004), eta bideragarritasun ekonomikoa duela eta bere produktuak merkatura normal ateratzen direla.
- c) Que Sí NO (marcar lo que proceda) ha obtenido ayudas sujetas a los Reglamentos minimis correspondientes durante este ejercicio fiscal y los dos anteriores, cuyo importe asciende a €.
- d) Que el proyecto cumple las normas en materia de medio ambiente e higiene, así como las normas comunitarias aplicables a las inversiones de que se trate y que no conlleva efectos negativos significativos sobre el medio ambiente.
- e) Que se compromete a poner a disposición del Gobierno Vasco o de los Organos de Control establecidos, toda la documentación que fuese necesaria para la verificación de la ejecución de la inversión y/o gasto y la realización del proyecto.
- f) Que no se encuentra sancionada penal ni administrativamente con la pérdida de la posibilidad de obtención de subvenciones o ayudas públicas, ni se halla incurso en prohibición legal alguna que la inhabilita para ello, con inclusión de las que se hayan producido por discriminación de sexo, de conformidad con lo dispuesto en la Disposición Final Sexta de la Ley 4/2005, de 18 de febrero, para la Igualdad de Mujeres y Hombres.
- g) En el supuesto de ser persona física o jurídica privada, que la empresa de la que es titular no tiene la consideración de empresa en crisis, de acuerdo con la definición establecida en las Directrices Comunitarias sobre ayudas estatales de salvamento y reestructuración de empresas en crisis C 244/2004, de 1 de octubre de 2004 y tiene viabilidad económica y salidas normales al mercado para sus productos.

2018ko apirilaren 5a, osteguna

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

h) Ez dagoela Diru-laguntzei buruzko Lege Orokorraren 13.2. artikuluan aurreikusitako debekuen kausetan nahastuta, bertan diru-laguntza publikoak eskuratzea eragozten duten debekuak jasotzen dira. Eta berariaz adierazten du egunean dituela bai zerga-betebeharrak, bai Gizarte Segurantzarekikoak eta egunean dela, halaber, diru-laguntzak itzultzeko betebeharren ordaintetan ere.

h) *Que no se encuentra incurso en ninguna de las prohibiciones que para acceder a las subvenciones establece el artículo 13.2. de la Ley General de Subvenciones. Específicamente declara que se halla al corriente en el cumplimiento de las obligaciones tributarias y con la seguridad social, y en el pago de obligaciones por reintegro de subvenciones.*

[] (e)n, 2018ko [] (r)en [] (a)n En [], a [] de [] de 2018

**AHALDUNAREN SINADURA ETA ENPRESA ZIGILUA
FIRMA DEL REPRESENTANTE Y SELLO DE LA EMPRESA**

Datu Pertsonalak babesteari buruzko 15/1999 Lege Organikoan xedatutakoa betez, Ekonomiaren Garapen eta Azpiegitura Sailak jakinarazten dizu inprimaki honen bidez eskuratutako zure datu pertsonalak datuak tratatzeko fitxategi automatizatu batean sartuko ditugula. Hala nahi izanez gero, datuok eskuratu, zuzendu, ezeztatu eta datuoi aurka egiteko eskubideez balia zaitezke, Eusko Jaurlaritzako Ekonomiaren Garapen eta Azpiegitura Sailaren Zerbitzu Orokorraren Zuzendaritzari idatzi bat bidaliz, hura baita tratamenduaren arduraduna (Donostia-San Sebastián kalea 1, 01010 Vitoria-Gasteiz).

En cumplimiento de lo dispuesto en la Ley Orgánica 15/1999, de Protección de Datos de Carácter Personal, el Departamento de Desarrollo Económico e Infraestructuras, le informa que sus datos personales obtenidos mediante la cumplimentación de este impreso, van a ser incorporados para su tratamiento en un fichero automatizado. Si lo desea, puede ejercitar los derechos de acceso, rectificación, cancelación y oposición, previstos por la Ley, dirigiendo un escrito a la Dirección de Servicios Generales del Departamento de Desarrollo Económico e Infraestructuras del Gobierno Vasco, como responsable del tratamiento, y con domicilio en C/ Donostia-San Sebastián, 1, en Vitoria-Gasteiz.

Donostia - San Sebastián, 1 - 01010 - VITORIA-GASTEIZ
Tef. 945 01 96 93 - Fax 945 01 97 02

2018ko apirilaren 5a, osteguna

PROGRAMA ITSASPEN	EUSKO JAURLARITZA EKONOMIAREN GARAPEN ETA AZPIEGITURA SAILA <i>Landaren eta Itsasertzaren Garapeneko eta Europar Politiketako Zuzendaritza</i>	 GOBIERNO VASCO DEPARTAMENTO DE DESARROLLO ECONÓMICO E INFRAESTRUCTURAS <i>Dirección de Desarrollo Rural y Litoral y Políticas Europeas</i>	ESPEDIENTEA EXPEDIENTE

BAIMENAK
CONSENTIMIENTOS
*** BAIMENAK / CONSENTIMIENTOS**

Baimena ematen diot, deialdi hau kudeatzen duen organoari, bide telematikoen bitartez edo eskuragarri dauden bideen bitartez administrazio eskudunean honako hauek egiaztatzeko, baieztatzeko edo ziurtatzeko:
Autorizo al órgano gestor de esta convocatoria a la comprobación, constancia o verificación en la Administración competente por medios telemáticos o en su caso, por los medios que estén disponibles:

Zerga betebeharrak egunean edukitzea: Bai / Sí Ez / No
Cumplimiento de las obligaciones tributarias:

Gizarte Segurantzarekiko betebeharrak egunean edukitzea: Bai / Sí Ez / No
Cumplimiento de las obligaciones de la Seguridad Social:

Eskaera egiten duen pertsona fisikoaren identitate datuak: Bai / Sí Ez / No
Datos de identidad de la persona física solicitante:

Pertsona juridiko eskatzailearen legezkoa den ordezkariaren identitate datuak: Bai / Sí Ez / No
Datos de identidad del representante legal de la persona jurídica solicitante:

Oharra: Kontrakotasuna adieraziz gero, prozeduran eskatutako agiriak ekarri behar dituzu.
Nota: En caso de oponerse, deberá aportar los documentos requeridos en el procedimiento.

_____ (e)n, 2018ko _____ (r)en _____ (a)n En _____, a _____ de _____ de 2018

AHALDUNAREN SINADURA ETA ENPRESA ZIGILUA
FIRMA DEL REPRESENTANTE Y SELLO DE LA EMPRESA

Datu Pertsonalak babesteari buruzko 15/1999 Lege Organikoan xedatutakoa betez, Ekonomiaren Garapen eta Azpiegitura Sailak jakinarazten dizu inprimaki honen bidez eskuratutako zure datu pertsonalak datuak tratatzeko fitxategi automatizatu batean sartuko ditugula. Hala nahi izanez gero, datuok eskuratu, zuzendu, ezeztatu eta datuoi aurka egiteko eskubideez baliu zaitezke, Eusko Jaurlaritzako Ekonomiaren Garapen eta Azpiegitura Sailaren Zerbitzu Orokorren Zuzendaritzari idatzli bai bidaliz, hura baliu tratamenduan arduraduna (Donostia-San Sebastián kalea 1, 01010 Vitoria-Gasteiz).

En cumplimiento de lo dispuesto en la Ley Orgánica 15/1999, de Protección de Datos de Carácter Personal, el Departamento de Desarrollo Económico e Infraestructuras, le informa que sus datos personales obtenidos mediante la cumplimentación de este impreso, van a ser incorporados para su tratamiento en un fichero automatizado. Si lo desea, puede ejercitar los derechos de acceso, rectificación, cancelación y oposición, previstos por la Ley, dirigiendo un escrito a la Dirección de Servicios Generales del Departamento de Desarrollo Económico e Infraestructuras del Gobierno Vasco, como responsable del tratamiento, y con domicilio en C/ Donostia-San Sebastián, 1, en Vitoria-Gasteiz.

Donostia - San Sebastián, 1 - 01010 - VITORIA-GASTEIZ
 Tef. 945 01 96 93 - Fax 945 01 97 02

2018ko apirilaren 5a, osteguna

PROGRAMA ITSASPEN	EUSKO JAURLARITZA  GOBIERNO VASCO EKONOMIAREN GARAPEN ETA AZPIEGITURA SAILA <i>Landaren eta Itsasertzaren Garapeneko eta Europar Politiketako Zuzendaritza</i>	DEPARTAMENTO DE DESARROLLO ECONÓMICO E INFRAESTRUCTURAS <i>Dirección de Desarrollo Rural y Litoral y Políticas Europeas</i>	ESPEDIENTEA EXPEDIENTE

**ESKAERAREN I. ERANSKINA
 ANEXO I DE LA SOLICITUD**

I	PROIEKTUAREN DATUAK DATOS DEL PROYECTO
----------	------------------------------------------------------

ENPRESA / EMPRESA

* Enpresa mota / Tipo de empresa: Entitate publikoa / Entidad pública Beste entitate batzuk / Otras entidades

(¹) Sozietate motak / Tipo de sociedad:

INBERTSIOAREN KOKAPENA / LOCALIZACIÓN DE LA INVERSIÓN

Helbidea / Dirección: PK / C.P.:

* Lurraldea / Territorio: * Udalerria / Municipio:

Entitatea / Entidad:

Harremanetarako pertsona / Persona de contacto: Arduradun / Cargo:

Telefonoak / Teléfonos: emaila / e-mail:

PROIEKTUAREN DESKRIPZIOA / DESCRIPCIÓN DEL PROYECTO

Proiektu edo jardueraren hasiera data / Fecha de inicio del Proyecto o Actividad:

Proiektu edo jardueraren bukaera data / Fecha de fin del Proyecto o Actividad:

Deskripzioa / Descripción:

2018ko apirilaren 5a, osteguna


INBERTSIO EDO GASTUAREN ZENBATEKOA / IMPORTE DE LA INVERSIÓN O DEL GASTO

KONZEPТУA CONCEPTO	2018 (€)	2019 (€)
Obren proiektuak egitea eta zuzentzea (gehienera, inbertsio osoraren %10) <i>Proyectos y dirección de obra hasta un máximo del 10% de la inversión total</i>		
Urbanizaketa lanen egikaritzea materiala <i>Ejecución material de las obras de urbanización</i>		
Eraikuntza lanen egikaritzea materiala <i>Ejecución material de las obras de edificación</i>		
Birgaipen lanen egikaritzea materiala <i>Ejecución material de las obras de rehabilitación</i>		
Makineria, instalazioak, tresneria eta altzariak <i>Maquinaria, instalaciones, utillaje y mobiliario</i>		
Informatika-eta komunikazio-ekipoak <i>Equipos informáticos y de comunicación</i>		
Bestelako azpiegiturak <i>Otras infraestructuras</i>		
Azterlanak, eta lkerketa eta garapenerako (I+G) gastuak <i>Estudios y gastos en investigación y desarrollo (I+D)</i>		
Sustapen eta publizitate gastuak jarduera ez-emankorretan <i>Gastos de promoción y difusión en actividades no productivas</i>		
Proiektua gauzatzeko behar diren beste gastu batzuk <i>Otros gastos necesarios para la realización del proyecto</i>		
GUZTIRA / TOTAL:		

PROIEKTUAREN ARABERAKO ADIERAZLEAK / INDICADORES POR TIPO DE PROYECTO

Eskatutako laguntzari dagozkion adierazleak bete beharko dira.

Deberán cumplimentarse los indicadores correspondientes a la ayuda solicitada.

<input type="checkbox"/>	Itsas ekonomiarako eta populaziorako oinarritzko zerbitzuak <i>Servicios básicos para la economía y la población litoral</i>
a)	Zerbitzu edo azpiegitura mota: <i>Tipo de servicio o infraestructura:</i> <input type="text"/>
b)	Zerbitzuen hobetzearen onuradunak diren itsasertzaren biztanleria: <i>Población de las zonas litorales beneficiaria de la mejora de los servicios:</i> <input type="text"/>
<input type="checkbox"/>	Itsas ondearen zaindu eta hobetzea <i>Conservación y mejora del patrimonio litoral</i>
a)	Jarduera-mota ⁽¹⁾ : <i>Tipo de actuación ⁽¹⁾:</i> <input type="text"/>
b)	Zerbitzuen hobetzearen onuradunak diren itsasertzaren biztanleria: <i>Población de las zonas litorales beneficiaria de la mejora de los servicios:</i> <input type="text"/>

⁽¹⁾ Datu hauek betetzeko posible diren balioak dokumentu honen azken orrian aurki ditzakezu.

Los valores posibles para cumplimentar estos datos están disponibles en la última página de este documento.

2018ko apirilaren 5a, osteguna

PROGRAMA ITSASPEN		GOBIERNO VASCO DEPARTAMENTO DE DESARROLLO ECONÓMICO E INFRAESTRUCTURAS <i>Dirección de Desarrollo Rural y Litoral y Políticas Europeas</i>	ESPEDIENTEA EXPEDIENTE
	EUSKO JAURLARITZA EKONOMIAREN GARAPEN ETA AZPIEGITURA SAILA <i>Landaren eta Itsasertzaren Garapeneko eta Europar Politiketako Zuzendaritza</i>		

AURKEZTU BEHARREKO DOKUMENTAZIOA DOCUMENTACIÓN A APORTAR

Eskabide-eredua, erantzukizunpeko adierazpena eta **baimenak** zigitatu eta sinatu behar dira; horretaz gain, **eskariaren eranskina** behar bezala bete eta gero, agiri orokor hauek aurkeztu behar dira:

Además del **modelo de solicitud**, la **Declaración Responsable** y los **consentimientos** sellados y firmados, y el **anexo a la solicitud**, debidamente cumplimentado, se debe aportar la siguiente documentación general:

PERTSONA JURIDIKOAK:

- Sozietatearen estatutuen kopia.
- Eraketaren eskrituraren kopia eta Identifikazio Fiskaleko Txartelaren fotokopia.
- Eskatzailearen NANaren kopia, automatikoki egiaztatzeko berariazko baimenik ez baduzu eman, eta haren ordezkaritza egiaztatzen duen eskriturarena.
- Dagozkien erregistro publikoetan inskribatuta egotearen egiaztatpena.

PERTSONA FISIKOAK:

- Nortasun Agiri Nazionalaren kopia, automatikoki egiaztatzeko berariazko baimenik ez baduzu eman.

ESKABIDE GUZTIENTZAT AGIRI KOMUNAK:

- Aurkeztutako dokumentu guztiak egiazkoak direla dioen erantzukizunpeko adierazpena.
- Gizarte Segurantzari eta Ogasunari ordaindu beharreko ordaindu zaiela frogatzen duten ziurtagiri eguneratuak, automatikoki egiaztatzeko berariazko baimenik ez baduzu eman.
- Hirugarrenen altaren inprimakia.
- Garatu beharreko jardueraren deskripzio-memoria. Bertan honako hauek jasoko dira: kokapen geografikoa, inbertsioaren zenbatekoa, aurrekontu xehatua edota proformako faktura, burutzapen zehatzaren aurreikuspena, ordainketaren aurreikuspenak, finantzaketa.
- Inbertsioa egingo den lursailen edo higiezinen jabetzatituluaren, gozamenaren edo errentamenduaren kopia, eta, beharrezkoa izanez gero, lanaren proiektua lizentziaren kopia eta aldeko hirigintza baimena edo txostena, inbertsioak berekin batera obra zibila badakar.

Nolanahi ere, Landaren eta Itsasertzaren Garapeneko eta Europar Politiketako Zuzendaritzak enpresa eskatzaileei laguntzaren eskabidea behar bezala ulertu, ebaluatu eta izapidetzeko beharrezkotzat jotzen duen dokumentazio edota informazio osagarria eskatu ahal izango die.

Eskaerak, bai orginalak bai kopiak, Eusko Jaurlaritzako Ekonomiaren Garapen eta Azpiegitura Sailaren Landaren eta Itsasertzaren Garapeneko eta Europar Politiketako Zuzendaritzan aurkeztuko dira.

PERSONAS JURÍDICAS:

- Copia de los Estatutos Sociales.
- Copia de la escritura de constitución y fotocopia de la Tarjeta de Identificación Fiscal.
- Copia del D.N.I., de no haber consentido su verificación automática, y de la escritura que acredite el poder de representación de la persona solicitante.
- Acreditación de su inscripción en los registros públicos correspondientes.

PERSONAS FÍSICAS:

- Copia del Documento Nacional de Identidad, de no haber consentido su verificación automática.

DOCUMENTACIÓN COMÚN A TODAS LAS SOLICITUDES:

- Declaración responsable respecto de la veracidad de todos los documentos presentados.
- Certificados actualizados de hallarse al corriente en los pagos con la Seguridad Social y con Hacienda, de no haber consentido su verificación automática.
- Impreso de Alta de Terceros.
- Memoria descriptiva de la actuación a desarrollar, en las que consten datos sobre su localización geográfica, cuantía de la inversión, que deberá incluir presupuesto detallado y/o factura proforma, así como previsión de ejecución detallada, previsiones de pago, financiación y generación de empleo, viabilidad, así como la justificación de su encuadramiento dentro de las medidas de actuación definidas en el Decreto.
- Copia del título de propiedad, usufructo o arrendamiento de los terrenos o inmuebles donde se va a ejecutar la inversión, y en caso de que sea necesario, proyecto de obra, copia de la licencia, permiso o informe urbanístico favorable, en el caso de que la inversión lleve aparejada obra civil.

En cualquier caso la Dirección de Desarrollo Rural y Litoral y Políticas Europeas podrá requerir a la empresa solicitante cuanta documentación y/o información complementaria considere necesaria para la adecuada comprensión, evaluación y tramitación de la solicitud de ayuda.

Las solicitudes se presentarán en original y copia, en la Dirección de Desarrollo Rural y Litoral y Políticas Europeas del Departamento de Desarrollo Económico e Infraestructuras del Gobierno Vasco.



ESKABIDE HAU BETETZEKO JARRAIBIDEAK INSTRUCCIONES PARA CUMPLIMENTAR ESTA SOLICITUD

ELEKTRONIKOKI BETETZEA

Eskabide hau elektronikoki bete daiteke. Horretarako Adobe Acrobat Reader doaneko aplikazioa (eguneratutako bertsio bat) instalatuta izatea beharrezkoa da. Aplikazio hori helbide honetan jeitsi dezakezu: [Adobe](#). Kasu askotan dokumentuak berak ematen dizu aukera nahi duzun informazioa hautatzeko, datuen sarrera erraztuz.

Aplikazio hori instalatuta eta gero, eskabidea ireki eta honela jokatu:

- Eskabidea bete. Egiten diren aldaketak gorde ahal izango dira eskatutako informazioa osatu arte.
- Inprimatu eskabide hori sartutako datu guztiekin. Horretarako botoi bat dago formularioan bertan.
- Bidali eskabidea posta elektronikoz tramitazioa azkarragoa izan dadin. Horretarako ez da behar inolako helbide elektronikorik, botoi bat baitago formularioan bertan, lehen orriko idazpuruaren eskumaldean.

Eskaerak Eusko Jaurlaritzako Ekonomiaren Garapen eta Azpiegitura Sailaren Landaren eta Itsasertzaren Garapeneko eta Europar Politiketako Zuzendaritzan aurkeztuko dira.

Edo, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 16.4. artikulua aurreikusitako bideak erabiliz.

OHARRA: Eskabidea posta elektronikoki bidez bidaltzen bada ere ezinbestekoa da inprimakia izenpetuta eta zigilatuta dirulaguntzaren ardura duen Eusko Jaurlaritzako zuzendaritzara bidaltzea.

ESKUZ BETETZEA

Eskabidea eskuz betetzen bada, ohartxoei buruzko argibide hauek kontuan hartu beharko dira:

- Asterisko bat (*) aurrean dituzten eremuak derrigorrez bete behar dira.

CUMPLIMENTACIÓN ELECTRÓNICA

Esta solicitud permite ser rellenada electrónicamente. Para ello debe tener instalada una versión actualizada de la aplicación gratuita Adobe Acrobat Reader. Esta aplicación puede descargarse desde [Adobe](#). El propio documento permite seleccionar la información requerida en muchos de los casos, facilitando así la correcta introducción de los datos.

Una vez instalada dicha aplicación, abrid la solicitud y proceded de la siguiente forma:

- *Rellenad la solicitud. Se podrán guardar las modificaciones que se hagan hasta completar la información requerida.*
- *Imprimid dicha solicitud con los datos introducidos. Para ello existe un botón en la página uno dentro del propio formulario.*
- *Enviad la solicitud por e-mail para que la tramitación de la misma sea más rápida. Para ello no se necesita ninguna dirección de e-mail, ya que existe un botón dentro del propio formulario, a la derecha en la cabecera de la primera hoja.*

Las solicitudes se presentarán en la Dirección de Desarrollo Rural y Litoral y Políticas Europeas del Departamento de Desarrollo Económico e Infraestructuras del Gobierno Vasco

O por cualquiera de los medios previstos en el artículo 16.4 de la Ley 39/2015, de 1 de octubre, del Procedimiento Administrativo común de las Administraciones Públicas.

NOTA: *Enviar la solicitud electrónicamente no exime, en ningún caso, del envío en plazo del impreso firmado y sellado a la Dirección del Gobierno Vasco a la que se solicita la ayuda.*

CUMPLIMENTACIÓN MANUAL

En caso de rellenar la solicitud a mano, deberán tenerse en cuenta las siguientes notas aclaratorias:

- *Los campos precedidos de un asterisco (*) son de cumplimentación obligatoria.*



- Adierazitako eremuetan erabiltzeko zerrendak (nahi den aukerari dagokion kodea erabili behar da):
- *Listas a utilizar en los campos indicados (se debe utilizar el código asociado a la opción deseada):*

SOZIEKATE MOTAK / TIPOS DE SOCIEDAD

KODEA CÓDIGO	IZENBURUA TÍTULO
1	Udala / Ayuntamiento
2	Administrazio Batzarra / Junta Administrativa
3	Koadrila / Cuadrilla
4	Mankomunitatea / Mancomunidad
5	Partikularra / Particular
6	Fundazioa / Fundación
7	Elkartea / Asociación
8	Sozietatea / Sociedad
9	Ondasun erkidegoa / Comunidad de bienes
10	Erakunde profesionala / Organización profesional
11	Bestelakoak / Otros

JARDUERA-MOTAK / TIPOS DE ACTUACIÓN

KODEA CÓDIGO	JARDUERA-MOTA TIPO DE ACTUACIÓN
1	Azpiegitura / Infraestructura
2	Zerbitzua / Servicio